# EUSKADIKO XI. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

## 1993KO ABENDUAREN 1ETIK 21ERA

## AZPEITIA

AZPEITIAN ZER?

KULTUR ALDIZKARIA

69 Zenb. 1993ko Azaroa Ale Berezia Azpeitiko Udala

## AURKIBIDEA

Agurra

**AZAROA**

Ostirala 26: OMENALDIA 6
On Manuel Lekuona
Oiartzungo Udaletxea

**ABENDUA**

Asteazkena 1: EPA PEPA 8
"Antzezlanaren ipurdia"
Arratsaldeko 3etan, Zelaitxo

Osteguna 2: TAUPADA 10
"Lorategi urperatuak"
Arratsaldeko 3etan, Zelaitxo

Ostirala 3: IN FRAGANTI 12
"Hala ba zan ez bazan sar dadila..."
Gaueko 9,30etan, Zelaitxo

Larunbata 4: MARKELIÑE 14
"Teilatua"
Gaueko 9,30etan, Zelaitxo

Igandea 5: HIKA 16
"Babalibu babaliba"
Eguerdiko 12,30etan, Enparantza Nagusia

Osteguna 9: ZAKUTTO MATTO 18
"Zer ote?"
Arratsaldeko 3etan, Zelaitxo

Ostirala 10: BEDEREN BAT 20
"Argirik piztu gabe"
Gaueko 9,30etan, Zelaitxo

Larunbata 11: MASKARADA 22
"Monstruo sakratuak"
Gaueko 9,30etan, Zelaitxo

Igandea 12: TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILAZOAK 24
"Lumak"
Eguardiko 12,30etan, Enparantza Nagusia

Osteguna 16: OMENALDIA 26
ARKOTXA ANAIAK
Arratsaldeko 7etan, Udaletxea

Ostirala 17: TRASPASOS 28
"Sisifo"
Gaueko 9,30etan, Zelaitxo

Larunbata 18: HIKA 30
"Ongi etorri etsai hori"
Gaueko 10,30etan, Enparantza Nagusia

Igandea 19: SAMBHU 32
"Txap, niri bost"
Eguardiko 12,30etan, Enparantza Nagusia

Asteartea 21: ARTESZENA 34
"Kakatua berdea"
SARI BANAKETA
Gaueko 7,30etan, Zelaitxo

Astelehena 13
Asteartea 14
Asteazkena 15: ESKOLA ANTZERKIAK 36
Goizeko 11etan eta
Arratsaldeko 3etan, Zelaitxo

Kaixo denoi!
Azpeitiko Udalak, Euskal Antzerkiagatik urtez urte egin duen lan eta ahaleginagatik, gaur egun esan dezakegu, Euskadiko Antzerkiak baduela Azpeitiko Herrian topaleku garrantzitzu bat.

XI. edizio honetan ere, Abenduaren 1etik 21era hainbat eta hainbat antzerki emanaldiz eta Euskal Kultura eta literatur munduko zenbait aktibitatez osaturik izango da Azpeitia. Beraz, ezin dugu ahaztu guzti honek ematen digun poz eta atsegina.

Besterik gabe eta Alkate bezala, bai herritar, atzerritar, antzerki talde, euskal kultura eta antzerkizale guztiontzat, Azpeitian burutzen diren Topaketetara etor zaitezten gonbidapena luzatzen dizuet.

Agur bero bat.

JOSE MARIA BASTIDA
Azpeitiko Alkatea



Azpeitiko Udaleko Kultur Batzordeak agurtzen zaituzte, eta Euskadiko XI. Euskal Antzerki Topaketen berri eman nahi dizue.

Aurreko urteetan bezala, mota guztietako antzerkia ikusteko aukera izango dugu. Hala nola, emanaldi profesionalak, amateurrak, Eskola Antzerkia eta Kale Antzerkia, Azpeitiko kaleetan zehar izango dugu.

Bestalde, eta Topaketen barnean, On Manuel Lekuona Jaunari aipamen berezi bat egin nahi diogu; eta iaz bezala idazlea omenduz, Ikastetxeetako gazteentzat Irrati lehiaketa antolatu dugu.Era berean, Euskal Literaturaren alde hainbat lan egindako idazleak diren Arkotxa Anaiak ere goraipatuko ditugu.

Besterik gabe, denon gustoko Antzerkiak eta Ekintzak izango ditugulakoan agurtzen zaituztet.

VISHNU PRIYA
Kultur zinegotzia








# ON MANUEL LEKUONA

## OMENALDIA

( 1 8 9 4 - 1 9 8 7 )

Egile honen idazlanen ikuspegi oso bat finkatzea eta idazlanon ardatz nagusiak markatzea ez da lan erraza. Era askotakoak ditugu arakatu zituen gaiak: ahozko literatura, eusko etnografia, arte-izti, kondaira, euskeralogia eta literatur sorkariak. Gai bakoitzetik , ardatz teoriko bat burutu eta osatua zuen.

Hemen aipaezinak dira Manuel Lekuonaren hainbat eta hainbat lan, eta bere literatur kreazio guztia. Bere iloba den Juan Mari Lekuona jaunak aipatzen duen bezala, On Manuel Lekuona Kulturlari Euskalduna zen. Zer esan nahi du honekin?
"Lehenik, euskal kulturaren lekuko ohartua eta apartekoa izan da. Harentzat garbi zegoen hemen bazela medio etniko bat...
Eta errealitate hori arretagarria zela, eta hori zela gurea.

Bigarrenik, ez dagoela ez inongo eta inolako kultura bat ikasterik bertako testuingurua ezagutuz ez bada. Bera bizi zen herria Euskal Herria zenez erabaki zuen ikerketak Euskal Herriaz egitea.

Hirugarrenik, urteetako lana burutu ondoren, iritsi da gure inguruko mundua maila batean ezagutzera, eta gure artekoek bereganatu duten mundulekuntza ere bai, hau da gauzak ikusteko molde euskalduna.

Eta kultura alderdiko eta pusketan ulertu beharrean, osotasun batean ikusten erakutsi digu. Ahalegindu zen erakusten, gizon-emakume kulturak izen gintezkeela hemengo kultur erroetan zainak boteaz, kanpoko kultura orotarikoa eta bertako berezia elkarren osagarri bihurtuz.






# EPA PEPA

## "ANTZEZLANAREN IPURDIA"

IRAUPENA: 50 min.

### LABURPENA

Epa lagunak!
Zuek ikustera zoazten antzerki hau, ikusten ez duzuenean ohinarrituko gara.
Labur esanda, antzerki guztietan gertatzen zaizkigun buruhausteak, urduritasunak... adierazi nahi dizkizuegu.
Antzerkietan azaltzen dena ez da errealitatea, fikzioa baizik. Guk, fikzio hau irudimena landuz adornatu egin dugu zuei atseginagarri gertatzeko.

Antzerki talde bat da, 6 gaztek osatzen duten antzerki talde bat, hauek antzezlan bat antzeztu behar dute eta horretan datza kontakizuna: antzerki talde batek zer, nola eta nolakoak pasatzen dituen antzezlan bat egin aurretik eta egin bitartean.
Antzezlen hasi aurretik ikusten dutenean zenbat jende etorri den, oso urduri jartzen dira. Batzuei ia azpi-antzerkira (barrakorra) joatea ahazten zaie, eta joandakoan dena gaizki esaten dutenez, aurrean gelditzen direnak egundoko aurpegiak jartzen dituzte, honela eta antzerkia aurrera dijoan neurrian, guztiak ere lasaitzen joaten direlarik.
Arropak edo dekoratu erdia ahaztu zaie, azpi-antzerkian bat erori egiten da, eskenatokian zuloa egiten da, benetan inprobisaketa txarrak egiten dituzte, dena ahaztu egiten zaie eskenatokira irtetea bera ere bai, ... eta bukaeran jendea agurtu behar dutenean lotsatu egiten dira, baina azkenean behintzat bai paperezko eta bai benetako ikuslegoa (barruko ikuslego paperezkoa eta benetakoa) agurtzen dituzte.

### FITXA TEKNIKOA

Behar dugun eskenatokia ez da oso handia baina beharrezkoa litzateke atzekaldean toki pixkat izatea, bertan antzezten bait ugu, nolabait esateko, azpi-antzerkia eta bertan ipini behar bait ugu paperezko ikuslegoa.
Fokoekin berriz ez dugu lan handirik, beti argi bera erabiltzen baitugu. Azpi-antzerkian, ordea, argi bat behar dugu.
Antzezlan guztian, behin bakarrik itzaltzen dira argi guztiak.

**ITZULPENA**
Baina gure gustorako eta inguruan entzun ditugun komentarioengatik, nahiago dugu eta suposatzen dugu jendeak ere nahiagoko dituela antzerki motzak baina entretenigarriak izatea.

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| MAIDER IBARGUREN | Mari Eder<br>Azpi-antzerkian: Marzelino, Maribel. |
| ALAZNE IBURETA | Dorleta<br>Azpi-antzerkian: Don Luis, Nini. |
| ARANTZAZU MAIZ | Borja Mª<br>Azpi-antzerkian: Doña Paula |
| LEIRE SARASUA | Xexi<br>Azpi-antzerkian: Rufi |
| UNAI URBIETA | Aitor<br>Azpi-antzerkian: Don Jose |
| IDOIA ZUBIMENDI | Xole<br>Azpi-antzerkian: Pili, Doña Matilde. |

ABENDUAK

# osteguna 2

Ordua : **Arratsaldeko 3rak**

Lekua : **Zelaitxo**





# TAUPADA

## "LORATEGI URPERATUAK"

IRAUPENA: Ordu bete

### LABURPENA

Familia bat. Aita, ama, alaba eta aitona.
Fernando senarra da, 68.eko Maiatzaren garaian Kalifornian eta Sorbonako unibertsitatean ikasi zuena, intelektual progrea, bizitzaren trenak konturatu gabe harrapatua. Gaur egun 40 urte inguru ditu, tripa handitzen eta ilea urritzen ari zaio, lan arrunt baten segurtasun aspergarrian aspalditik eroria.
Clara emaztea da. Emakume liberatua bere garaian; Fernando baino lehenago gizon askorekin ibilitakoa, orain etxekoandre bihurtu da, pelukeria eta aldizkari ilustratuak izanik bere alizienterik kilikagarrienak.
Matias, Clararen aita da, gerran parte hartutakoa; ez da sekula bere alabarekin ondo konpondu, autoritate eta heziketaz ideia atzeratuak ditu, eta bere ustez Fernando sasi-progre hipokrita eta txepela da, ilobaren heziketa bide okerretik eramen duena.
Andrea, 15 urteko alaba da, heldua bere adinerako, ikasle bikaina, zintzoa, inoiz problemarik eman ez duena. Heziketa modernoa eskeini zaio. Bere eritzia aintzakotzat hartu izan da beti.
Familia urteetan egon da oreka batean, baina ezuzteko batek oreka hura erabat itxurazkoa zela erakutsiko du: halako batean Andrea desagertu da, eta inork ez daki nora joan ote den.
Bilaketa latz batean gurasoak gazteek bizi duten egoerara hurbilduko dira, institutoko zuzendariak, ikasbideak... gidaturik.
Iharduera hori dela medio, ordurarteko fikzioa gainbehera eroriko da, eta denak bizi izan duten gezurraren aurrean aurkituko dira.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| DATU TEKNIKOAK | Eskenategia: 8m.x 6m. |
| | Argi indarra: 10.000 W. |

Antzezlan hau 16 urtez gorakoei zuzenduta dago.

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| EGILEA | Jorge Diaz |
| ITZULPENA | Patxo Telleria |
| ZUZENDARITZA | Edurne Lasa |
| | Jose Mari Larrañaga |
| AKTOREAK | Fernando: Sabas Boyero |
| | Clara: Maider Gastesi |
| | Matias: Sara Bernedo |
| | Andrea: Marta Sanz |
| | Ikastetxeko zuzendaria: Leire Rodriguez |
| | Marina: Nerea Iriondo |
| | Polizia: Ibon Arriola |
| ESZENOGRAFIA DISEINUA | TAUPADA |
| ARGIKETA DISEINUA | TAUPADA |
| SOINUA | TAUPADA |
| ILEAPAINTZAILEA | MªAngeles Perez (Arroyabe) |

ABENDUAK

# ostirala 3

**Ordua :**
**Gaueko 9,30ak**

**Lekua :**
**Zelaitxo**





# IN FRAGANTI

## "HALA BA ZAN EZ BAZAN SAR DADILA..."

### LABURPENA

**Zer diote telefonoek goizeko seietan...**

Goizeko 6etan jotzen duenean telefonoak elkarrizketa guztiak gerta daitezke.

"Txoriak ilargian kulunkatu direla," (esan dezake Lauxaetak)
"Gauzak ez direla izan behar luketena," Orixek,
"Infinitoa neurtzen dutela haur oin tipiek," Atxagak,
"Izualdietan flako dela maitasuna," Duvoisinek,
"Sagarrondoak loretu direla besteen begietan".Lizardik,
"Berea bizi ez duenak bizi dezala besteena" Pello Errotak,
"Noraezean abiatzen denean baino urrutiago inoiz joaten ez dela" aldarrika dezake Sarrionaindiak,

"Dena hementxe hasi eta hementxe bukatzen dela" Iparragirrek,
"Edertasunak justifikaziyo beharrik ez duela", Txirritak.
"Sufritzen ez dela meritorik" Humphrey Bogartek.

Bizia eta ametsaren arteko ortzemugan, garrantzitsua, garrantzigabekotik, bereiztu ezin da.

Horregatik ditut mutu etxeko telefono guztiak.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| SOINU TEKNIKA ETA GRABAKETA ARDURADUNA | Iñaki Salvador |
| ESZENOGRAFIA ERAKETA | In Fraganti |
| JANTZI ERAKETA | Eli Elizondo |
| ARGIAK | In Fraganti |
| KARTEL DISEINUA | Edi Naudo |
| SOINUA | Belots |

Oraingo honetan ere moldagarritasuna izan da gure ardatzetako bat, izan da, edozein lekutan antzeztu ahal izateko, nahiz eta neurririk egokienak hauek izan:

| | |
|---|---|
| AHOA | 6m. |
| SAKONERA | 6m. |
| ZABALERA | 9m. |
| ALTUERA | 4m. |
| WATIOAK | 25.000 |
| INDARRA HARTZEA | 380 V. Hirufasekoa+Neutroa+Lurra edo 220 V. Hirufasekoa +Lurra. |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| AKTORESAK | Ane Gabarain<br>Idoia Sagarzazu<br>Olatz Beobide |
| ZUZENDARITZA | Edi Naudo |
| TESTUAK | In Fraganti<br>Joserra Gartzia<br>Felipe Juaristi |
| AHOTS AHOLKULARITZA | Loiola Garmendia |
| MUGIMENDU AHOLKULARITZA | Arantza Balenciaga |
| MUSIKA KONPOSAKETA | Angel Unzu<br>Joseba Tapia |
| SOINUA | Juan Antonio Garmendia |
| ESZENOGRAFIA DISEINUA | Edi Naudo |
| ARGIKETA DISEINUA | Edi Naudo |
| JANTZIEN DISEINUA | Eli Elizondo |
| MAKILAIA | Koro Ramon |

ABENDUAK

# larunbata

# 4

Ordua :
Gaueko 9,30ak

Lekua :
Zelaitxo





# marKeliñe

## "TEILATUA"

IRAUPENA: 70 min.

### LABURPENA

**"Teilatua" dela eta...**

Teilatu gainera igo gera antzerkia egiteko. Gau izartsu batean hain zuzen. Ez da leku erosoa zuhurtasunerako, baina aproposa da irudimenerako. Horregatik dugu gogoko. Hemendik aurrera derrigorrezko galdera dugu erantzuteko: Gauez, teilatu gainean, nor ote dabil? Burura datorkigun berehalako erantzuna "katuak" da. Dena dela, erantzunak bestelako azalpen luzeagoa eskatzen du. Berdin dio; gure irudimena martxan ari da eta. Eta ariketa honetan, errealitateak, beste itxura bat hartzen du.

'Fantasma de la Ópera" delakoan gertatzen zen bezala, "Teilatuko bibolinjoleak" gaua ikutzen du, leku honi esanahia eman nahirik. Teila eta katu artean, suiziden itzalak eta lapurren siluetak nabaritzen dira. Tximiniak mugitu egiten dira eta, maitaleek, sabailehiotik egiten dute ihes. Apurka-apurka, leku hau magiaz betetzen da. Guraso bik, euren umeen negarren ondorioz etsita, txupeteak aldatzen dizkiote elkarri. Emakume batek, bere gizona utzi du, mozkorra pasatu arte. Honela, teilatua bisitari arraroen babesleku bihurtu da.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| ZABALERA | 9,5 m. |
| ALTUA | 4,5 m. |
| SAKONERA | 6,5 m. |
| ARGIA | 30.000 ws. 380 vs. |
| SOINUA | 2.000 ws. 220 vs. |
| MONTAIA | 4,5 ordu |
| DESMONTAIA | 2,5 ordu |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| IZENBURUA | "Teilatua" (Entretejas) |
| EGILEA | Markeliñe |
| ZUZENDARITZA | Iñaki Egiluz |
| AKTOREAK | Javier Renobales<br>Jose Ramon Martinez<br>Iñaki Egiluz<br>Nerea Astoreka |
| ESZENOGRAFIA | Jose Ibarrola |
| MUSIKA - ZUZENDARITZA MUSIKALA | Fran Lasuen |
| MUSIKARIAK | Fran Lasuen<br>Kepa Junkera<br>Javier Ituarte |
| ARGIZTAKETA | Marcial Estevez |
| TEKNIKARIAK | Jon Kepa Moreno<br>Jon Arrieta |
| ARGAZKIAK | Aitor Agorria |
| ZUZENDARIA | Patxi Santamaria |

Estrenoa: BARAKALDO ANTZOKIAN.1993ko Otsailaren 13an.

ABENDUAK

# igandea 5

Ordua :
Eguardiko 12,30ak

Lekua :
Enparantza Nagusia





HIKA

## "BABALIBU BABALIBA"

IRAUPENA: Ordu bete.

### LABURPENA

Denbora asko ez dela, hiri txiki batean Marisa bizi zen, fantasiaren munduan sinisten ez zuen ume bat.
Marisari ez zitzaizkion sinesgarri iruditzen sorgin gaiztoak, ez printze ederrak, ez kutxa txiki zoragarriak, ezta inolako maitagarri eta hadak ere.
Dena helduen asmakizunak zirela esaten zuen. Norbait ipuin bat entzuten edo irakurtzen ikusten zuen bakoitzean farre egiten zion eta esaten.
Sorginik ez dago!!!
Hadarik ez dago!!!

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| BEHARRIZAN TEKNIKOAK | Hesiak |
| | Soinurako toma arrunt bat |
| | Balkoi bat bertako enparantzan |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| EGILEA | Agurtzane Intxaurraga |
| ZUZENDARIA | Belen Cruz |
| | Agurtzane Intxaurraga |
| AKTOREAK | Joseba Aierbe |
| | Belen Cruz |
| | Miren Gojenola |
| | Mikel Laskurain |
| | Agurtzane Intxaurraga |
| | Eli Roson |
| KARTELA | Joseba Aierbe |
| ARGI TEKNIKARIA | Patxi Aristimuno |
| SOINU TEKNIKARIA | Miren Goienola |
| ESZENOGRAFI DISEINUA | Joseba Aierbe |






# ZAKUTTO MATTO

## "ZER OTE"

IRAUPENA: 45 min.

LABURPENA

Gu antzerkian 13 neska garenez, ongi iruditu zitzaigun antzerki hau egiterakoan gure mutilenganako jakinmina umorearekin adieraztea. Baina, hau ez zen nolanahikoa. Hau da, beraein parterik garrantzitsuenetan zer aurkitzen zen jakitea baizik.

FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| MUSIKA | Edozein tresna |
| BEHARRIZAN TEKNIKOAK | Argia: 6.000 W.<br>Antzezlekua: Zabalera: 8m.<br>Sakonera: 6m. |

FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| EGILEA | Zakutto-Matto |
| ZUZENDARIA | Axen Escalada |
| AKTOREAK | Naiara Karrera<br>Leire Juaristi<br>Goizargi Oruesagasti<br>Ainara Betegi<br>Alaitz Arregi<br>Mireia Arregi<br>Mireia Otaegi<br>Miriam Aizpuru<br>Ainhoa Aizpuru<br>Eneritz Elorza<br>Naroa Gurrutxaga<br>Itxaso Lazkano<br>Josune Orbegozo |

ABENDUAK

# ostirala

# 10

**Ordua :**
**Gaueko 9,30ak**

**Lekua :**
**Zelaitxo**





BEDEREN 1

## "ARGIRIK PIZTU GABE"

**IRAUPENA:** 75 min.

### L A B U R P E N A

**"Sexualitatearen heziketa kanpaina"**

Europako elkartearen laguntza bitarteko eta gure gobernuaren eraginez "Sexualitatearen Heziketa Kanpaina" deituriko hitzaldi hau aurkezten dizuegu.
Bertan hainbat arazo eta mamuren jatorria edota konponbidea azalduko zaizkizue.

Antton Horma

| | |
|---|---|
| HIZLARIA | Wilfreda Smoeller |
| GOBERNUKO ORDEZKARIA | Antton Horma |
| AKTOREAK | Sorkunde Mehe<br>Mikel Zabal |

### F I T X A   T E K N I K O A

**"Argirik piztu gabe" ren talde teknikoa.**

| | |
|---|---|
| TALDEAREN IZENA | Bederen 1 |
| IKUSKIZUNAREN IZENA | Argirik piztu gabe |
| AUTOREA | Bederen 1 |
| ZUZENDARIA | Patxi Santamaria |
| HIZKUNTZA | Euskaraz |
| AKTORE KOPURUA | Bi |
| TEKNIKO KOPURUA | Bi |
| ZEIN PUBLIKORENTZAT | Guztientzat |

### F I T X A   A R T I S T I K O A

| | |
|---|---|
| JATORRIZKO IDEIA ETA TESTUA | Patxi Santamaria |
| GIDOIA | Beatriz Zabalondo,<br>J.L.Aranguren<br>"Txiliku" eta Bederen 1 |
| AKTOREAK | Maribi Arrieta<br>Xabier Agirre |
| ESZENOGRAFIA DISEINUA ETA EGILEA | Jon Ezkurdia |
| JANTZIAK | Jon Ezkurdia |
| MUSIKAREN AUTOREA | Toni Villar |
| ARGIEN DISEINUA | Aitor Aizpurua |
| DISEINU GRAFIKOA | Jon Ezkurdia |
| JANTZI MARGOKETA | Rafa Serras |
| JOSTUNA | Pepi Soroiz |
| ATREZZOA | Jon Ezkurdia |
| ARGI TEKNIKARIA | Aitor Aizpurua |
| SOINU TEKNIKARIA | Toni Villar |
| DISTRIBUZIOA | Xabier Agirre |
| PRODUKZIOA | Bederen 1 |
| ZUZENDARI LAGUNTZAILEA | Karlos Odriozola |
| ZUZENDARIA | Patxi Santamaria |

ABENDUAK

# larunbata 11

Ordua :
Gaueko 9,30ak

Lekua :
Zelaitxo





## Maskarada

## "Monstruo sakratuak"

IRAUPENA: 70 min.

### LABURPENA

Imajina dezagun aktore bi euren umore definizioaren bila dabiltzala. Imajina dezagun areto batean azaltzen direla, jendez beteriko areto batean, prestatu dituzten hainbat ariketa frogatzeko asmoz.
Publikoa izango da, aktoreek hala eskatuta, "ariketa" bakoitzari buruzko eritzia emango duena.
"Ariketak" era askotakoak izango dira:"klown" estiloko agerraldiak, pelikula mutuetan oinarrituriko esketxak, teatro pasarte ezagunak, txiste laburrak...Bakoitzaren ostean publikoaren zuzena, txalometroa, aretoaren tenperatura...
Baina aktoreak hezur-haragizkoak dira, ez dira errobot hutsak. Antzokia , aktore batentzat oso esanguratsuak diren objetuz beterik dago: foko zaharrak, banbalinak, eskailerak, arropak, eta lantzean behin euren betebeharra ahaztu eta objetu horien inguruan hasten dira mintzatzen, elkarrizketa eroan.
"Ariketa" eta elkarrizketen diferentzia nabarmena da: lehenengoetan humorea ortopedikoa da, kanpokoa, prestatua; bigarrenetan naturala, eurena. Dena den aktoreak ez dira horretaz jabetzen eta "galdutako umorearen bila" jarraituko dute.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| ARGIAK | Jon Mesperuza |
| SOINUA | Justo Ozaeta |
| JESTIOA | Maite Arrese |
| BEHARRIZAN TEKNIKOAK | Argia: 15.000 W.<br>Soinua: 500 W.<br>Antzezlekua: Zabalera: 7m.<br>Sakonera: 4m. |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| EGILEA | Roland Dubilloard |
| ZUZENDARIA | Karlos Panera |
| AKTOREAK | Mikel Martinez<br>Patxo Telleria |
| ITZULTZAILEA | Patxo Telleria |
| PRODUKZIOA | Maskarada s.l. |

ABENDUAK

# igandea 12

**Ordua :**
**Eguardiko 12,30ak**

**Lekua :**
**Enparantza Nagusia**





# TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILAZOAK

## "LUMAK"

**IRAUPENA:** Ordu bete eta 20 min.

### LABURPENA

Pirrutx atsegin eta alaia eszenatokian agertzen da.
Haurrak agurtu ondoren, luma bat azaltzen du eta bere balioa aipatzen hasten da. Takolo, magoen musikaz, bertaratzen zaio eta beste hiru luma dituelarik, laugarren bat falta zaiola esaten du. Pirrutxek aurkitu omen du, eta orduan magia eta klownaren arteko harremana sortzen da. Takolo mago bihurtzen da eta Pirrutx berriz trakets eta bihurri. Porrotxek ez du festa-giroa ere galdu nahi , eta telefonoz deitzen du. Abestiak eta dantzak sortzen dira, eta azkenean, amonak arazo bat daukala plazaratuko du. Takolo, Pirrutx eta Porrotxek arazo horri aurre egingo diote, bakoitzak ahal duen bezala, noski.
Pirrutx eta Porrotxen bihurrikeriek Takolo haserre jarriko dute, eta festa ez da nolanahi bukatuko.
Dena dela, amaieran umorea eta zoriona nagusituko da eta umeei musuak ez zaizkie faltako.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| ESZENATOKIA | Altuera 3 m.<br>Luzera 8 m. |
| AZPIKO TOLDOA | Luzera 6 m.<br>Zabalera 8 m. |
| MEGAFONIA | 2.000 W. , 4 mikro inalanbrikoak |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| AKTOREAK | Takolo: Agustin Mujika<br>Pirrutx: Patxi Sanz<br>Porrotx: J.M. Agirretxe |
| MEGAFONIA TEKNIKOA | Ion Mujika |
| OIHAL DISEINUA | Maika |
| MARGOLARIA | Rakel Legorburu |
| MUSIKA MOLDAKETA | I.Salvador |
| KARTEL DISEINUA | J.Tokero |
| ANTZEZLANAREN IZENA | Lumak |
| EGILEA | Takolo, Pirrutx,eta Porrotx |
| ZUZENDARIA | Takolo, Pirrutx,eta Porrotx |






# ARKOTXA ANAIAK

## OMENALDIA

### IOSU ARKOTXA MARTIJA

Mutrikun jaio zen 1921-3-4ean. Kontugilea.
Jose Antonio Arkotxa, Euskal Antzerkigile ugariaren anaia. Biak, amaren magalean euskaraz ederto ikasi eta bizitzan zehar edertoago landuak.
Euskal Idazle bezela, "Zeruko Argia"n eta "Modeon"(Motriku, Deba eta Ondarroa) deritzan herri arteko aldizkarian idatzi du.Baditu zenbait antzerkilan: **Itxasne** (Donostiako "Educación y Descanso"k saritutakoa) eta **Gaixo billa** ; beste batzuren artean.



IOSU Arkotxa Martija

### JOSE ANTONIO ARKOTXA MARTIJA

Mutrikun jaio zen 1911-3-29an. Beti izan da euskaltzale eta euskal idazle. Egunkari eta aldizkarietan lankide izan da, "Euskadi", "El dia", "Zeruko Argia", "Stella Maris", "Argia", "Egan", eta Donostiako "La Voz de Guipuzcoa" irratian. "Kirol zale", "Joxantonio", eta "Atxukale" ezizenak erabili ditu. Euskaltzaindikoa da.
Antzerki lanekin eta Irratiko gidoiekin hainbat sari jaso ditu.
Teatro lan asko dauzka. Hona berak idatzitako zenbait lan:

- Nork nori ziria sartu? (1949) Azpeitian lehenengoz antzeztua. Bakarrizketa.
- San Piñastegi eguna. (1951)
- Antzerki ikasketa berezia. (1954). Lehen saria.
- Brokel Jauna. (1964).
- Porteraren semea. (1967). Sozial antzerkia.
- Itsas lapurrak. (1970).
- Joxemaritarrak. (1981). Bilbon saritua.
- Kresal txipixtrinak. (1982).

(beste hainbat eta hainbat lan ere argitaratuak ditu).



J. Antonio Arkotxa Martija

ABENDUAK

# ostirala 17

**Ordua :**
**Gaueko 9,30ak**

**Lekua :**
**Zelaitxo**





# traspasos

## "Sisifo"

IRAUPENA: 70 min.

### L A B U R P E N A

**DESBERDINA DEN ZERBAIT**
Hasierako ideia distiratsu guztiak "Sisifo" obran taldearen sendotzen dira. Sisifo lana dantza da batez ere, mantentzen eta sendotzen dira. Sisifo lana dantza da batez ere, baina antzerkiaren mekanismo eta iltze asko daukan dantza. Zortzi emakumek lanean, eguneroko bizitzan, eta elkarrekiko harremanetan errepikatzen diren keinuak behin eta berriz eramaten dituzte eszenatokira, mugimendu eta pauso dotorez, leunak batzuetan, kementsuak eta indartsuak beste batzuetan. Zehaztasun teknikoa eta naturaltasuna izan dira betidanik haien ezaugarri nagusiak. Dantzaren pausoen artean aurpegi esanguratsuak, gorputz arinak, kidetasun irriak, ongi egindako lanetik sortzen diren irriak, tartekatzen dira.

Agus Perez

(Kritikaren laburpena)
Egunkaria, 1993ko Martxoak 3.

### F I T X A   T E K N I K O A

| | |
|---|---|
| ESZENATOKIA | Zabalera (Gutxienez) 9 m. |
| | Altuera (Gutxienez) 5 m. |
| | Luzera (Gutxienez) 9 m. |
| ARGI INDARRA | 30-35.000W. |
| MONTAIA | 5 ordu. |
| DESMONTAIA | 2 ordu. |

### F I T X A   A R T I S T I K O A

| | |
|---|---|
| ZUZENDARITZA | Mikel G. de Segura |
| DANTZARIAK | Marga Arroyo |
| | Inma Fdz. de Betoño |
| | Marina Ruiz |
| | Begoña Crego |
| | Ines Uriarte |
| | Cristina Quijera |
| | Vicky Garcia |
| | Monica Egileta |
| ARGI DISEINUA | Javi Ulla |
| ORDEZKARIA | Charo Fdz. Insausti |

ABENDUAK

# larunbata 18

Ordua :
Gaueko 10,30ak

Lekua :
Enparantza Nagusia



| | |
|---|---|
| **ANTZEZLEAK ETA MANIPULATZAILEAK** | Joseba Aierbe, Belen Cruz, Miren Gojenola, Mikel Laskurain, Agurtzane Intxaurraga. |
| **MUSIKARIAK** | "Tolosako dultzaineroak": Jose M.Agirre, Xabier Urdangarin, Joaquin San Sebastian, Juan Ramon Zipitri. |
| **IRRATSAIOKO AHOTSAK** | Niko Lizeaga, Aizpea Goenaga, Joseba Apaolaza, Peter Roberts, Itziar Mujika eta HIKA. |
| **ARGAZKIAK** | Kaixo eta Antonio Fernandez |
| **SUAK** | Astondoa |
| **IRRATSAIOKO TEKNIKOA** | Jose Kruz Elosegi |
| **ANTZEZLANAREN TEKNIKOAK** | Jose Antonio Irazu, Jose Ignazio Zubeldia |
| **JANTZI ETA ELEMENTUEN TAILERRA** | Lluis Traveria, Catou Verdier, Koldo Losada, Mabel Gutierrez, Zapatari Ziklos eta HIKA. |
| **AHOLKULARITZA LANAK** | Mila Martinez (Samba eta salsa); Edurne Rodrigez-"Legaleon T"-(Clown teknika); Inazio Tolosa (Musika); Andreu Sanchez-"Els Comediant" -(Diseinu artistikoak). |
| **KARTEL, ELEMENTU ETA JANTZIEN DISEINUAK** | Joseba Aierbe |
| **DRAMATURGIA ETA ZUZENDARITZA** | Agurtzane Intxaurraga |
| **LAGUNTZAILEAK** | Gipuzkoako Foru Aldundia; Lekeitioko Antzerki Jaialdia; Euskadi Irratia;Hernaniko Molotoff Irratia. |

*Gure esker onenak TANTTAKA taldeari eta MAILUS haur eskolari.



HIKA

## "ONGI ETORRI ETSAI HORI"

### LABURPENA

Hika antzerki taldeak gaur, lau urtez jotake lanean ibili eta gero, bere VI. antzezlana prestatzera doanean, kalera joko du berriro ere egunerokotasunari kolore berri eta bizitasun berezi bat emateko asmoz.

Prest gaude bertan nahasteko eta lan egiteko. Prest gaude zu eta zuetarikoak gurekin harrapatzeko ere. Prest gaude "Kultura" eginez jai bat antolatzeko. Beraz, geure burua prest ikusten dugunez, gonbidatuak zaudete gure ONGIETORRI berezian parte hartzaileak izateko. Ez ahaztu!!!

KALEA..................................................................................

Zementozko lurrez, zaratazko soinuz eta hautsezko ezenografiz osaturiko antzokia.

KALEA..................................................................................

Anonimoen bizitokia.

KALEA..................................................................................

Bereziak diren gauzen desinteresa. Interesa desinteres bihurtzen den tokia besterik ez.

Gaur, historian behin betirako gogoratuko den urte baten azken egunetan.

Gaur, Urte berri baten hasieran. 1993+1 (1994), joan den urtea gogoratzeko besterik baino balioko ez duen urtea. Urte anonimoa.

Gaur, eta bihar, eta etzi, eta etzidamu, aurreko urtean ospetsuak egin zirenak gogora ekartzeko egunak.

HANDITASUN ETA HANDIKERIEN ARTEKO MUGA EZARTZEN DUEN ISTORIOA.

BI ANAIREN ARTEKO TIRA-BIREN ADIERAZPENA.

IDEIEN INDARRA ETA SAKONA KONTATZEKO ADINEKO ISTORIOA.

Geuk ere historiaren parte bat izan nahi dugu. Geuk ere omenaldi bat eskeini nahi diegu 1993a ospetsua egin zutenei.

Haiei, norbere etxea bertan behera utziz, etxe berriak eraikitzera joan zirenei hain zuzen ere. Benetan, ...ONGIETORRIAK izan zaitezte.

### FITXA TEKNIKOA

**BEHARRIZAN TEKNIKOAK**

Hesiak.
Gabez bada: 12.000 W. argi indarra.
Bi begirale , gauzak zaintzeko.
Elementuak montatzeko areto estali bat.
Soinurako toma arrunt bat.

### FITXA ARTISTIKOA

## igandea 19

Ordua :
Eguardiko 12,30ak

Lekua :
Enparantza Nagusia





SA

## "Txap, nir

IRAUPENA: Ordu bete.

L A B U R

Clown-ek beraien "Minizirko" ha
malabarak, akrobaziak, monozikl
hainbat numeroren artean bertako
helduen barre algarak samaldan
partehartzea eta umore ona, den
muntaia baten inguruan txikiak
lortzen du ikuskizun honek.

F I T X A T

ESKENATEGIA
ARGI INDARRA
NORI ZUZENDUA Haurren
MUNTAIA
DESMUNTAIA

F I T X A A R

IZENBURUA
EGILEA
ZUZENDARIA
EKITALDIAK Ekitaldi (edo
AKTOREAK

ESZENOGRAFIA, ATREZZOA
JANTZIA
MUSIKA Verdi, Schubert, E
ITZULTZAILEA




# SAMBHU

## "TXAP, NIRI BOST"

IRAUPENA: Ordu bete.

### LABURPENA

Clown-ek beraien "Minizirko" handia aurkezten digute. Joko malabarak, akrobaziak, monozikloa, magia, musika eta beste hainbat numeroren artean bertako protagonista diren haur eta helduen barre algarak samaldan isurtzen dira. Sinpletasuna, partehartzea eta umore ona, den-denak batera biltzen dituen muntaia baten inguruan txikiak eta haundiak elkarganatzea lortzen du ikuskizun honek.

### FITXA TEKNIKOA

| | |
|---|---|
| ESKENATEGIA | 6 m. x 6 m.x 4 m. |
| ARGI INDARRA | 10.000 W, 380 V. |
| NORI ZUZENDUA | Haurrentzat (4-10 urte bitartekoentzat) |
| MUNTAIA | 4 ordu. |
| DESMUNTAIA | 1,30 ordu. |

### FITXA ARTISTIKOA

| | |
|---|---|
| IZENBURUA | "Txap, niri bost" |
| EGILEA | Azucena Zabaleta Bueno |
| ZUZENDARIA | Manuel Fontalba Romero |
| EKITALDIAK | Ekitaldi (edo acto) batetan desarroilatzen da. |
| AKTOREAK | "Txuflo": Juan Antonio San José<br>"Pamplina": Azucena Zabaleta |
| ESZENOGRAFIA, ATREZZOA | SAMBHU |
| JANTZIA | Esther San José |
| MUSIKA | Verdi, Schubert, Edgar Froese eta Charles Chaplin |
| ITZULTZAILEA | Manuel Fontalba Romero |

ABENDUAK

# asteartea

# 21

Ordua :
**Gaueko 7,30ak**

Lekua :
**Zelaitxo**

Saio ostean :
**Sari banaketa**





ARTEszena

## "KAKATUA BER

LABURPEN

Itxurakeriatan ibiliz gero jokoa errealitate bi
dagoela adierazten digu "**Kakatua Berdea**" a
hori zer maisutasunez egiten duen, antz
antzerkiaz baliatuz, izango da, agian,
harrigarriena. Kakatua Berdean ageri zaigun
ez dago, itxuraz, Parisko 1789 u
matxinadarentzat lekurik. Hargatik, gustora
behe-auzoetako jendearen gorabeherak a
Prospèreneko aktoreen antzespenak ikustera.
aberatsei lapurtzen, lapurrak jauregial
aristokrata gazteak hiltzen , eta abar. Ki
nobleziari eszena "itxuraz" benetako
gertatzen ari denaren beldur eta emozio
haraxe biltzen da. **Kakatua**ko mundua ongi
osatzen dute: Prospèreneko aktoreek e
gainbehera datorren aristokrazioako kideek
horietatik bikoiztasun giro bat sortuko
fikzioak elkarrengandik bereiztea zail bihu
eta nobleen arteko joko hori - egoera nor
hutsa- iraultzak nahasi egingo du eta zor
zaie. Kanpokoaren -Frantses Iraultzaren
antzerkiaren- arteko mugak ezabatuz, Sc
bertara eraman du iraultzaren garaipena
eraginez bere andrearen maitalea hilko d
iraultzaile heroikotzat hartuko da. Non da
nahiago du zalantza. Horregatik, ustelke
ustelkeriarekin nahasiz, gu nahasi nahi gai

FITXA ARTI

IZENBURUA

EGILEA
ZUZENDARITZA
EUSKAL BERSIOA
ERDAL BERSIOA

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

ESZENOGRAFIA
JANTZIAK
ARGIAK
TEKNIKO ARDURADUNA
PRODUKZIO IDAZKARIA
PRODUKZIO LAGUNTZAILEA
PRODUKZIOA

DUAK

steartea

21

Ordua :

ueko 7,30ak

Lekua :

Zelaitxo

Saio ostean :

ri banaketa





ARTEszena

## "KAKATUA BERDEA"

### L A B U R P E N A

Itxurakeriatan ibiliz gero jokoa errealitate bihurtzeko arriskua dagoela adierazten digu "**Kakatua Berdea**" antzerki lanak, eta hori zer maisutasunez egiten duen, antzerkiaren barruko antzerkiaz baliatuz, izango da, agian, obrako gauzarik harrigarriena. Kakatua Berdean ageri zaigun Prospèren tabernan ez dago, itxuraz, Parisko 1789 uztailaren 14eko matxinadarentzat lekurik. Hargatik, gustora joaten dira nobleak behe-auzoetako jendearen gorabeherak antzesten dituzten Prospèreneko aktoreen antzespenak ikustera. Ikusgai: karteristak aberatsei lapurtzen, lapurrak jauregiak husten, txuloak aristokrata gazteak hiltzen , eta abar. Kilikagarriak zaizkio nobleziari eszena "itxuraz" benetako horiek, eta, kalean gertatzen ari denaren beldur eta emozio bizien gose denez, haraxe biltzen da. **Kakatua**ko mundua ongi bereizitako bi zatik osatzen dute: Prospèreneko aktoreek eta haien ikusleek -gainbehera datorren aristokrazioako kideek-. Aurkako bi mundu horietatik bikoiztasun giro bat sortuko da, eta errealitate-fikzioak elkarrengandik bereiztea zail bihurtzen da. Aktoreen eta nobleen arteko joko hori - egoera normalean denporapasa hutsa- iraultzak nahasi egingo du eta zorigaiztokoa gertatuko zaie. Kanpokoaren -Frantses Iraultzaren- eta barrukoaren -antzerkiaren- arteko mugak ezabatuz, Schnitzler-ek Kakatura bertara eraman du iraultzaren garaipena: aktore batek zeloen eraginez bere andrearen maitalea hilko du eta hilketa egintza iraultzaile heroikotzat hartuko da. Non dago egia? Schnitzler-ek nahiago du zalantza. Horregatik, ustelkeriaren artea artearen ustelkeriarekin nahasiz, gu nahasi nahi gaitu.

### F I T X A   A R T I S T I K O A

| | |
|---|---|
| IZENBURUA | "Kakatua Berdea" |
| EGILEA | Arthur Schnitzler |
| ZUZENDARITZA | Mario Gas |
| EUSKAL BERSIOA | Andoni Egaña |
| ERDAL BERSIOA | Feliu Formosa |
| ZUZENDARI LAGUNTZAILEA | Fernando Bernues<br>Maribel Belastegi |
| ESZENOGRAFIA | Jon berrondo |
| JANTZIAK | Mabel Gutierrez Arana |
| ARGIAK | Mario Gas |
| TEKNIKO ARDURADUNA | Jokin Conde |
| PRODUKZIO IDAZKARIA | Helena Mendinueta |
| PRODUKZIO LAGUNTZAILEA | Sofia Alforja |
| PRODUKZIOA | Arteszena s.l. |

ABENDUAK

## astelehena 13

Ordua : Goizeko 11ak — Lekua : Zelaitxo

Ordua : Arratsaldeko 3rak — Lekua : Zelaitxo

## asteartea 14

Ordua : Goizeko 11ak — Lekua : Zelaitxo

Ordua : Arratsaldeko 3rak — Lekua : Zelaitxo

## asteazkena 15

Ordua : Goizeko 11ak — Lekua : Zelaitxo

Ordua : Arratsaldeko 3rak — Lekua : Zelaitxo



# ESKOLA ANTZERKIAK

**DONOSTIAKO AITOR IKASTOLA**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Patxi Azkarra"
"Kasimira eta bere txerriak"
"Mutil harroputza"
"Idazkariaren txerria"

**AZKOITIKO XABIER MUNIBE IKAST**
**GOI ZIKLOKOAK**

"Hau hala bazan"

**AMURRIOKO LUCAS REY HERRI IKAS**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Abestia-Mezulariak"
"Ipotxaren etxea"
"Errege sudur gorriari"

**ONDARROAKO ZUBI-ZAHAR IKA**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Printze txikia"
"Zezena plazan"

**ZIZURKILKO PEDRO MARI O**
**HERRI IKASTETXEA**
**HASERA ZIKLOKOAK**

"Zirko sorgindua"

**GALDAKAOKO EGIA HERRI IK**
**GOI ZIKLOKOAK**

"Eskale musikariak"
"Martizio"

astelehena 13

Ordua :
Goizeko 11ak

Lekua :
Zelaitxo

Ordua :
Arratsaldeko 3rak

Lekua :
Zelaitxo

asteartea 14

Ordua :
Goizeko 11ak

Lekua :
Zelaitxo

Ordua :
Arratsaldeko 3rak

Lekua :
Zelaitxo

asteazkena 15

Ordua :
Goizeko 11ak

Lekua :
Zelaitxo

Ordua :
Arratsaldeko 3rak

Lekua :
Zelaitxo

# ESKOLA ANTZERKIAK

**DONOSTIAKO AITOR IKASTOLA**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Patxi Azkarra"
"Kasimira eta bere txerriak"
"Mutil harroputza"
"Idazkariaren txerria"

**AZKOITIKO XABIER MUNIBE IKASTOLA**
**GOI ZIKLOKOAK**

"Hau hala bazan"

**AMURRIOKO LUCAS REY HERRI IKASTETXEA**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Abestia-Mezulariak"
"Ipotxaren etxea"
"Errege sudur gorriari"

**ONDARROAKO ZUBI-ZAHAR IKASTOLA**
**ERDI ZIKLOKOAK**

"Printze txikia"
"Zezena plazan"

**ZIZURKILKO PEDRO MARI OTAÑO HERRI IKASTETXEA**
**HASERA ZIKLOKOAK**

"Zirko sorgindua"

**GALDAKAOKO EGIA HERRI IKASTETXEA**
**GOI ZIKLOKOAK**

"Eskale musikariak"
"Martizio"

| | |
|---|---|
| Zuzendaria: | EUSEBIO LARRAÑAGA |
| Kultur Batzordea: | VISHNU PRIYA |
| | IÑAKI ETXEZARRETA |
| | M. JESUS GARMENDIA |
| | IGNACIA BERECIARTUA |
| | AITOR LARRAÑAGA |
| | KARMELO GOENAGA |
| Kultur teknikaria: | M. PILAR ARRIETA |
| Egileak: | TXAKEL & ASOCIADOS |

BABESLEAK

EUSKAL TELEBISTA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

AZPEITIKO UDALA
(KULTUR BATZORDEA)

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

kutxa fundazioa
fundación kutxa